

Milagros Ertzilla Arregi

*Arrasate
Gipuzkoa (1934)*

Aurkibidea

Biografia



Udala auzoko Arteta baserrian jaio zen 1934an. Aita bertakoa zuen eta ama Elorrioko baserri batekoa. 3 anai-arreba izan arren, berari tokatu zitzaion baserriko lanetan aritzea eta eskolara ere gutxi joan ahal izan zuen. 23 urterekin ezkondu zen; senarra aramaioarra zen, baina gaztetatik Udala auzoan apopilo zegoena.

Zintak

ARR-047

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-02-13
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Gerratean, sotoan gordeta

- **Erref:** ARR-047/002
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:00:37. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>1934ko maiatzean jaio zen Udalako Arteta baserrian. Senarra, Aramaioko ganboatarra, Artetara ezkondu zen. Gerra denboran ume pila bat soto batean gorde zituzten. Milagrosen anaia batek ihes egin zuen eta osabaren etxera joan zen.</p>

Transkripzioa

- Hemen jaixo ziñan?
- Hementxe. Etxien gaiñera.
- Zeu maiorazkua?
- Ez, anaie nausixaue dauket. Ha kalien bizi da. Iñok pe ez euen gure basarrire eta azkenien ni geratu bihar.
- Bizi guztia hemen pasau dozu?
- Bai, bizi guztie. Ni enaz iñun ibilli lanian. Ni bizi guztien aitta-amak zainddu ta hemen egon naz.
- Eta zuk umiak eta hemen hazi dittuzu?
- Hemen hazi ttut danak.
- Eta nundik etorri xatzun gizona?
- Gizona Aramaixotik, Ganboatarra.
- Nungua?
- Ganboa. Ganboatarra. Aitta munizipala eukin euen horrek. Gerra-denporan ama kaiñonazuak hiltzia gure gizonai tta.
- Han bertan Aramaixon?
- Ez hemen, Zerkaostietan.
- Zu gerra denporan justu jaixo, ezta?
- Bai, hantxe jaixo nintzen, umetxue. Ni akordetan naz hemendik kalera eruen giñuen gu. Sotanue euen hor, zerien, Monterronen nuen. Anaie, nausixaue, hiru urten aldie, ihes eiñ auen sotanotik, ume pillue han, gure apurue, ama etori zaniengandak fuenda, ha tiogana Madarixara Kaxintogana. Iges indda mutikuek.
- Zulotik igesi? Gustau ez han egotia?

-Ba norabaitt iges ein biha auen eta igesi. Eta gu han tian seme-alaba danok han gengozen (...), eta harek ihes ein auen. Eta ama etorri zanian mutikue falta. Danak larri mutikue topetan eta ha tiogana fuenda.

-Eta tiogana nora joan zan?

-Madarixara, Letera. Hor (...) bidian, Jabierren-da aittagana. Besaidetarra Jabier, eskabadoriak ibilli zanena. Haren aittana.

-Ze etxetakua?

-Madarixa. Basarrixa Madarixa zan.

-Eta ze auzotan?

-Ba Garagartzatik gora, Santa..., zerien.

-Han Uribarri alde hartan?

-Bai, hortxen. Buenoo!

-Mutikuak hanka eiñ?

-Mutikuak hanka eiñ.

-Baiña azkenian topau eben.

-Bai. Segiduen antza emon euien amak eta nora fan zan ha. Etxera hona be etzan etorri. Aittajuna-amandriak hemen azen, gu beste danak fuenda baiña aittajuna-amandriak hemen geratuta azen artian, hona bez, ha tiogana. Esango auen, ni hara faten banaz segiduen topauko naue ta tiogana.

-Zenbat urte eukan orduan?

-Ni txikitxua nintzen, ba nik baiño hiru urte gehixao ba zenbat, mutikotxue; bost urte xei. Gero han egon zan baiñe lelengokuen iges eiñ auen. Mutikuen lanak.

2. Eskola euskaraz

- **Erref:** ARR-047/003
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

<p>Gerran ez zuen ezeren faltarik izan, bere amak lana zuelako soldaduei arropak garbitzen. Gerraostean hasi zen eskolan. Euskaraz jaso zuen berak eskola. Apaiz bat eta Tolosako maistra bat izan zituen irakasle. Eguraldi txarra zegoenean joaten ziren eskolara, onarekin etxean beti egoten zen zer egina eta.</p>

Transkripzioa

-Beste rekuerdorik badaukotzu, bonbardeuak edo holako zerik?

-Keba! Gu umetxuek gintzen eta [...] kalien gengozen.

-Zuen etxiak kalterik izan eben?

-Ez. Gero gu hona etorri gintzen. Ni ez naz akordetan kalteik eukin geuenik.

-Esaten dabe Matonena eta eskola barrixa ta dana xehetuta gelditu ziela.

-Ez, ez, hau ez zan xehetu. Ni ez naz akordetan xehetu zanik.

-Zuk gerria ez ziñuen ezautu, baiña gerra ostia bai.

-Gerra ostia bai. Gerria bera ez ba umetxuek gintzen-ta. Guri ezer ez jakun /etxakun/ falta gerra denporan. Amak soldauei erropak garbittu eta eitten utsen, txokolate eta danetik emuten utsien eta guri sekule ezer ez jakun / etxakun/ falta. Baiña amak lana eitten utsien eta guri ez jakun /etxakun/ falta ezer.

-Eta zu orduan gerraostetxuan hasiko zifien eskolan?
-Bai, gerraostian.
-Zenbat urtekin hasi zifien eskolan?
-Ba xei urte ero.
-Hemen auzuan?
-Auzuen, auzuen. Auzuen gauken guk eskolia. Gure umiek be hemen ikesi euen, baiñe gero zerrau zan eta kalera fan zien.
-Zuk sei-zazpi urtekin eskolan hasitta, badaukazu goguan zenbat urte egin zittuzun?
-Zenbat urte? Zenbat urte eingo geuen ba, urtebete eingo ete geuen? Puxkat hasi gintzenien solora denpora ona euenien ittaurren, eta denpora txarraz eskolara. Denpora onaz ez auen.
-Eta ze ikasten zeuen han?
-Leiduten eta eskribidu eta ba danetik erakusten oskuen.
-Dana euskeraz, ezta?
-Dana euskeraz. Euskeraz, euskeraz. Euskeraz eitten zan orduen.
-Apaizak?
-Apaizak, eta gero maistra bat egon zan Tolosakue.
-Kalian dana erderaz zan.
-Ba hemen euskeraz, dana euskeraz. Zenbat ba, umetxuek gintzen-ta, ittaurren ein ein biher zan, soluen ein biher zan.
-Ahal zanian eskolara.
-Ahal zanian, denpora txarra euenien eskolara. Soluan lanik ez euenien. Ta orduen ba umiek ihesi eskolara fan barek jolasien. Baiñe gero etxien jakiñien segiduen abixetan auien, baekixen ba txarraz bialketan giñuena ta, abixetan auien eta aide!, gero etxien somantie ez gintzelako fuen. Eta esaten gutsen: "a, eta denpora txarraz fan biher dou /bihou/ bakarrik eta onaz zegaittik ez?".

3. Umetan etxeoandre

- **Erref:** ARR-047/004
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Eskolako jolas-orduan jolasten zuten, baina etxean ez zuten astirik izaten. Hiru anai-arrebatatik gazteena zen Milagros. Nagusiena laster hasi zen lantegian; bigarrenak eskola apur bat jaso zuen, baina berak etxeko eta kanpoko lanak egin behar izaten zituen. Gurasoak eta aitajaun-amandreak zeuden etxean.</p>

Transkripzioa

-Ze hola rekuerdo barregarrin bat...
-Ez, ez, ezebez barregarririk.
-Neska-mutillak?
-Neska-mutillak danak pillan. Neu akordetan naz mutiko bat, oin fraille dao, berai be etxako ahaztu, eztakit ze eingo usten, emun nutsen ainkariaz nik eztakit zela enutsen kendu besua. Oindio etxako ahaztu hari, e!
-Hori zeuk?

-Neuk berai. Nik eztakit ba ze ingo usten-da. Eta nik ainke. Ondio etxako ahaztu hari.

-Igal markia han eukiko dau.

-Markie eztakit dauken baiña etxako ahaztu. Urtero etorten da auzora, fraille dau ta beti esaten dau: "Akordetan za?", eta bai, eta akordetan naz ba ba ni. Umien kontuek. Bestela ba ezebez besteik.

-Eukitzen zenduen astirik jolaserako eta?

-Errekreo denporan eta. Bestela ezebez, etxien ez zeuan astirik, etxera etorten zintzenien lana euen txiki-txikittatik, e!

-Zenbat anai-arreba zinen?

-Hiru. Anaie da nausixena, gero nire aiztie, gaztiaue ni baiño, zazpi urte. Hak bai, hak eskolie ta dana, hak (...), gu gintzen kastigautakue, ni. Eta ha mutille be puxkat hazi zanien frabikara lanien eta ni etxien beti lanien.

-Zuk etxeko lanak eta solokuak.

-Eta solokuak, danak. Dana ein bihe zan da.

-Eta aitta-amakin eta aittajauna-amandriekin...

-Aitta-jauna amandriek, bai. Aittajaune hil jaten niri, nik hamalau urte nauken ha hil zanien. Ta ni kaletik josten ero, ikasteko ero bialketan giñuen astixa euenien, da netorren kaletik gora, orduan ez euen kamiñoik eta auzoko bi gizon berutze eta esan ustien: "zuk eztozu jakingo, baiñe kajatan goiez, aittajaune hil da". Nik orduen enauen ikusi bidien nundik netorren be. Abixaran, nik usten dot harri danak aurrien ekarri nittuela etxera. Eta etxien esan ustien: "Baina zelan esan leike umetxuei aittajaune hil dala bidian".

-Zeu bakarrik zoiazela.

-Bakarrik. Nik orduen enauen ikusi bidien, ezta... Aurrien topau baneu edozer be aurrien eruengo neuen orduan, nik orduen enauen ikusi.

-Eskerriak ez euela kotxerik.

-Ez euela, bestela pentsaizu. Eta nik hamalau urte neuken aittajauna hil zanian.

4. Eskolako jolasak

- **Erref:** ARR-047/005
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:12:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

14 urte zituela, hilabete bat egon zen kalera joaten josten ikastera. Eskolan dotrina, idazten eta irakurtzen ikasten zuten. Jolas-orduetan pote-poteka, "a escondites" edo tortolosekin jolasten zuten. Udalako eskola zaharrean ikasi zuten.

Transkripzioa

-Eta orduan zenbitzen josten ikasten?

-Josten ikesten. Egunen batzuk libratzen (bazien) ba josten ikesten bialketan giñuen. Eskolaik ez baiñe josten ikesten gero.

-Nora joaten zinen?

-Arrasatera. Kalien, kalien.

-Hemen ez euen, kalera. Eta kaletik goratxuau konbentue dau, eta konbentu parien, bestiek berutze eta esa ustenien nik enauen ikusi.

Illunduta auen, orduan negue zan, xeirak ero zien eta illun-illun. Nik bidie enauen ikusten ordun aurrien zer nauken be hori esaustienian.

-Eta zenbat denpora egon zinen joskin ikasten?

-Joskiñ ikesten hillabete ero; zenbat ba, asko ez. Justo etxeko zera eitteko. Justo.

-Eta neska asko juntaitten zineten joskiñ ikesten?

-Bai. Auzotik ez, kalekuek.

-Hori pagau ingo zan, ez?

-Pagau, pagau.

-Akordatzen zara zein zan erakustaillia?

-Ez. Ezautu eitten nauen baiña eztakit hari zelan esaten utsien be.

-Baiña monjia etzan izango?

-Ez, ez, kaleko emakume bat zan, kaleko emakume bat.

-Eta hemen eskolan ez zotsuen erakusten josten?

-Keba! Hemen eskolan justo faten gintzen egunetan eskribidu edo leidu edo zerbaitt. Bestela ezebez besteik.

-Dotriñia bai.

-Dotriñia bai, hori bai, hori seguru auen.

-beste herri batzutan neskatillen eskoletan goizetik emoten eben eskolia eta arratsaldetik puntua eitten.

-Puntu eitten ero, baiñe hemen ez. Guri ez oskun hori be erakutsi hemen.

-Errekreuan ze jolas eitten zenduen?

-Ba, pote-poteka ero. "Eskondites" ero, hurrengo tabakin, segun nundik emuten euen jentiei.

-Zapakonetan eitten zebeñ?

-Tabak.

-Tabakin.

-Eta zelan jolasten zenduten tabakin?

-Ba bata bestiai segi eta ahal dan moruen, ez gekixen zer zan, danok ahal dan moruen.

-Eta pote-poteka zelan izaten zan?

-Ba gorde ta topetan zanien izena esan eta pote-pote!, eiñ da aide! Hurrengo geratu deilla beste bat.

-Nun zeuan eskolia?

-Goixen, elixa onduen dau,goixen dau, auzuen dau.

-Zuek eskola barrixan ala zarrian ibilli ziñien?

-Zarrian, zarrian.

-Juanitak esan dau gerra denporan barrixa akabau barri euela eta apurtu. Oiñ atzera martxan ipini dabela.

-Bai, ba martxan ifiñi daue, oiñ etortzen die kaleko umiek "Medio Ambiente" ero ifinitta daukie ta. Baiñe gure denporan bestie euen.

5. Txorizo eta odoloste

- **Erref:** ARR-047/006
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:12:51. **Bukatu:** 00:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ganadu asko edukitzen zuten. Baserria erre zenean kendu zuten ganadua. Orain sei asto dauzkate Artetako zelaian. Soroa eta ortua lantzen dituzte, eta hegazti eta bestelakoak ere hazten dituzte. Umetan bi txerri hazten zituzten urtean. Ardirik ez dute inoiz izan. Oraindik Milagrosek bi txerri hiltzen ditu urtean txorizo eta odolosteak egiteko.

Transkripzioa

-Ganau asko eukitzen zebein?

-Bai, ganau asko orduen. Gero ganauak (zaltaixe erre zanian?) kendu gittuen, ganauek gero be asko eukin gittuen.

-Zenbat behi inguru?

-Aittajauna (ta) bizi ziela bastante. Eta gero be euki gittun guk hamar ero euki ttugu, e. Ganauek betik egon dia. Gurien azkenengo ezkondu zan semie, mutiko bat daukie, zortzi urte ein bihe dau, hari be asko gustetan jakon. Baiñe zaltaixe (erre zanian?) ez zeuen nun euki, kentzera obligau gintzen. Oiñ (...) daukou, e. Oiñ bost asto edo xei daukou.

-Astuak?

-Astuek zelaixen. Ondio basarrixak segiduten dau.

-Ortua ta?

-Ortue ta bai, e.

-Eta babaik eta ereiten dozue.

-Babie ta bai. Guk babie etxerako hartzen dou, semiek be etxetik erueten daue, guk aurten be hartuittugu hogetaka kilo babak. Eta hori denpora txarraz, e. Oilluek eta konejuak bai. Nik ttoi astero erueten dutset astelehenetan bi dozena arrautza. (Daukaten arte) gero hemengo arrautzak eta hemenguak, eta astero eruten dutset. Nik oilluek eta konejuak ondio segiruten dot.

-Zu umia ziñanian be eukitzen zenduezen konejuak

-Konejuak, oilluek eta danetik. Orduen txarrixak be etxien hazten gittuen, oiñ eztaukou lekuik, ezin geike, baiñe ganau ta danetik. Gu txiki-txikittatik ikasitte gaz.

-Ardirik eukitzen zenduten?

-Ardiik ez, ardiik ez.

-Txarrixak zenbat, bi urtian?

-Txarrixak bi. Bi hazten gittun urtero. Oiñ erosi eitteittu hiltteko sasoian jakiñeko lekutik eta oin be txarrixak hiltteittugu guk, e.

-Txorixuak eitten dittuzue?

-Txorixuek eitteittugu guk. Nik txorixuek eitteittut. Eta gurien semiek be erdibana txarri bat esaten dau te enbasau gero txorixuek eta erdixak berak eruteittu. Txorixuk, ondio txorixuk. Esateutset: "Ni enazenerako ikasi zeikie, e, bestela pentsau."

-Guk be, oso ona da gure ama buzkantzak eitten. Zahartu zanian ein gontsan pelikulia. Eittia ezta zaila baña hestiak eta garbiketia...

-A, nik hesteik ezto txarrixanik aprobetxetan, e.

-Ni ardixakin nabil, buzkantzakin.

-Len be guk txarrixen hestiek eta garbittu, baiñe hak eukitten daue bihalekue! Oiñ erosteittut, erosi tta aurten be nik odolostiek eta. Esaten dustie: "Holako odolostiek zelau eitteittuzu?". (...) Juanitai tta be nik urtero erueten dutsiet, e. Eta esaten daue: "Holako odolesteik eztaue saltzen hemen". "Nik ezto ba espezialik ezebe eitten."

-Datorren urtian odolostien garaixan etorri egin bihakou bisitatxo bat egitera.

-Hoixe, bai, bai.

-Neri asko gustatzen jataz.

-Gustetan jatzu?

-Ointxe gastau die. Nik enbasauta eukin ttut odolostiek, e. Enbasau, gero zela siketu eitten dien, enbasau ta enbasau ta gaur einddakuen lakotxeik hillabetien be.

-San Martiñetan ala Gabonetan?

-Gabonetan hil nauen bat eta beste bat fan zan hillian. Nik bi hil ttut. Ia bat Gabon aurretixuan hil nauen eta bestia fan zan hillan azkenetan. Nik bi hil ttut. Urtero hiltteittut bi. Txarri erdi semiek erueten dau txorixuek enbasaute eta bestie etxerako.

-Konejuak eta oilluak eta danetik.

6. Txerriak irarekin erreta

- **Erref:** ARR-047/007
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Idiak ere bazeuden Artetan, etxerako lanak egiteko. Txerriak lehengo erara erretzen ditu oraindik Milagrosek, irarekin sua eginda. Gaztainadi zaharra berritzen hasiak dira. Urte osorako gaztainak gordetzen ditu izozkailuan. Lehengo gaztaina oskolean ondo gordetzen zen, baina orain hondatu egiten da. Lehenago gaztaina eta salda izaten zen eguneroko afaria.</p>

Transkripzioa

-Iririk izaten zeben?

-Bai, lehen irixak be bai.

-Karretero lanetan ibili da inor ala etxerako lanetarako bakarrik?

-Etxeko lanetarako bakarrik, e.

-Idia ekarri eta...

-Bai, idia ekarri eta etxek lanak. Egurre ekarri, suegurre ta idie ta soloko danak. Orduan ez euen makinarixaik. Eta dana irixekin itten zan.

-Oingo basuetan ez dago bape idarik, baiña garai hartan piñurik etzan egongo.

-Oin be idie bai, Nik txarri-denporarako idie abaitta ekarten dot txarrixe erreteko. Lehengo antiguara itten dot nik, e!

-Bai? Eztozu sopletiakin eitten?

-Ez, ez, ez. Gurien idiaz. Nik txarri denporarako irie ekarrikot.

-Baiña oiñ momentuan hemengo basuetan burdikara bat ida egiteko...

-Bai, gurien bai. Bai, bai, bai. Piñuixetan be gurien oindio idiek asko urteten dau. Eztoula ebaten, txarrixentzako bakarrik.

-Txarrixa orduan ida usaiñaz.

-Ida usaiñaz, bai. Guk beti eittendou, e. Jentiek sopletiak itten dau (...). Guk txarri-denporie, txarrixe beti idiaz.

-Sendorkara bat nahikua, ezta?

-Bai. Guk txarrixan zera eitten dou idiaz. Jentiek sopletiak, baiñe nik sopletiak eztakit zelakua izengo dan gero. Guk ez.

-Idia egon ezkerro...

-Bai, guk idiaz eitten dou, e.
 -Baiña zuk piñuz jositta daren baso honek, lehen garai baten etzan piñurik egongo.
 -Lehen ez.
 -Lehen zer? Basua-ta gaztaiña ta...
 -Basua ta gaztaiña ta hori. Ondio nik gaztañuixa be badauket, e. Ondio.
 -Lehen go zaharrak?
 -Bai, eta barrixek ifintteko asmuekin dabitz, hor bi ero hiru ifinitta daukie ta. Gero gaztaiña denporan gaztaiñek batu eta konjelaute eukitteittut, urte guztien aguentetan dau konjelaute.
 -Koskol barik, ezta?
 -Koskol barik, bera alie konjelau.
 -Beste garai baten koskol da guzti gordeko zittuen neguan jateko.
 -Bai. Neguen jateko. Baiñe koxkolien hondatu eitten dia. Lehen ez, baiña oiñ nik eztakit ze pasetan dan, jenero dana koxkolien batu, eukiñ eta hillabete baiño lehen dana, gaztaiña danak hondatute.
 -Hori gaitz barri horregaittik izango da?
 -Eztakit nik zeaittik dan. Eta oiñ eitten da koxkolik barik konjeladorian sartu ta ia ezta. Han badakigu ondo dauela. Han ondo dauela.
 -Lehen be gaztaiña asko batuko zan, ezta?
 -Lehen be asko. Eta oin be bai, oin be nik aurten be danak eztittut batu, gure dauenak fuen da batu han geratu zien.
 -Baiña oin kapritxoz, lehen jateko, ezta?
 -Bai. Oin be jateko, nik eztot saltzeko, oin be jateko.
 -Bai, baiña esan gura dot lehen neguko jatordu prinzipalena...
 -Gaztaiña, gaztaiña. Afaitteko gaztaiña.
 -Saldia ta gaztaiña.
 -Gaztaiña. Lehenau ez euen besteik, e. Oiñ (eiozu) saldie ta gaztaiñak, etxetik kanpora urten biheko zauke. Etxetik kanpora.
 -Gaurko afaixe hau da: berakasaldia ta gaztaiñak.
 -Gaztaiñak.

7. Aramaiora estraperloan

- **Erref:** ARR-047/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean garia udaletxera eramatera behartuta zeuden. Garia estraperloan ehotzeko Aramaiora eramaten zuten, gauez, astoan kargatuta, basorik baso. Beste auzotarren batekin elkartuta, gauez joan, garia eho, eta gauez itzultzen ziren.</p>

Transkripzioa

-Zer gehixao jaten zenduen lehen?
 -Lehen? Beste ezebe ez auen, esnie euenien pozik.
 -Etxian ganaua bazeukazuen...
 -Bai, etxien etxakun falta izen. Baiñe jentiek esaten auen esnie kapritxue zala, e. Guri etxakun falta izen.
 -Beste batzuk esan izan doskue kaleko jentiak dirua ba baiña jatekorik ez, dirua ezin jan.

-Jatekoik ez, dirua ezin jan, eta garirik ezpauen diruaz ze itten zauen? (Basrrixan?) ba betik egoten zan. Biheko emun. Biheko emun, bestela badakitzu ze auen eta. Biheko emun aiuntamentuan parte. Guk garixe beti hartzen gauen, eta urune ba eitteko ba erueten gauen Arrasaten, eruen da ixoten oskuen. Geurie zan ero beste batena emuten oskun eztakigu baiñe urune ekarteko.

Hemen be errotak itxita egon zien gerratian?

-Bai, bai. Itxitta egon zien, bai.

-Ez eben ametitten inork eruaterik?

-Ez, ez, eruteik. Ixillien Aramaixora gabez da, e. Gaiñera hona bez, Aramaixora, e. Astuen hartuta gabez Aramaixora.

-Nundik zihar joaten ziñazien?

-Besaidetik ziher, basotik. Basoik-basoik.

-Gabaz fan eta gabaz etorri.

-Gabaz etorri. Gabez, dana gabez in biha zan-da.

-Eta sekula harrapau zintuzten?

-Ez, sekula etxakun zerik. Apuro edarrak pasau bai, e, gabez ta ze zarata sometan zienien-da zera, baiña. Sekula ez oskun hartu.

-Zeu joaten ziñan?

-Bai.

-Bakarrik joaten ziñan edo anaiakin?

-Ez. Besten bat edo beste auzokue ero juntau ta ba faten gintzen.

-Bi edo hiru?

-Bai, astuekin hartu ta aide.

-Baiñe susto galantak pasauta gabez, e.

-Orduan fan ixo eta ekarri?

-Ekarri. Gabez. Ta holakuek be eiñ in biha zien-da...

8. Etxera ezkondu behar

- **Erref:** ARR-047/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txikitatik izan zituen Milagrosek etxeko ardura asko. Amonari egiten zizkion iruzur xamurrak. Milagrosek ez du inoiz etxetik kanpo lanik egin. 23 urterekin ezkondu zenean kalera bizitzera joatea nahi zuen, baina etxean geratzerik inork nahi ez zuenez, bera geratu behar izan zen.

Transkripzioa

-Baiña niri erakutsi ustien txiki-txikittatik ibiltten da esan nutsien. Da gero gurien (amandrie gauken) da harek ba dirue hainbeste (gordetan?) auiela kontrebuziñuek eta, da betik: "bai, hainbeste eta eztakit zer". Eta nik betik gutxiao esaten nutsien. Eta betik esaten ustien: "Zelan konponketan za?", "Zetako esangotsat ba hainbeste kobrau daubiela, disgustue emuteko? Eta esan gutxiao eta hor konpon, eta pozik geraketan zan.

-Danok pozik.

-Danok pozik. Eta nik esaten nutsen ba (guzurra be) noxien behin esan ein biheko da, bestela beti: "ene!, hainbeste eztakit zer", baiña nik hamabi urterako kontrebuziñuek, etxeko asunto dana neure kontu itxi istien, e. Da hamabi urteaz,e, neskatillatxue horrek danok eitten, e. Txiki-txikittatik.

-Zuk etxetik kanpo ez...
-Ez, ez, ez. Etxetik kanpo enaz ibilli. Eztotsut ba esan etxian, bizi guztian baserrixen lanian, aittajauna-amandriak, aitta-amak danak neure kontu hemen gero. Etxetik ni hemendik enaz ibilli iñun.
-Zenbat urtekin ezkondu ziñan?
-Hogeta hirugaz. Nik esan nauenien ezkondata kalerako, aitta ta ama (...) negar baten. Azkenien ba etxien geratu bihar.
-Bazeukazun gogua kalera joateko?
-A, bai, bai, nik esan nutsien: "Bizi guztien lanien errebetetan hemen eta ze pentsau dozue ba?" Eta ez aubien gure. Eta azkenien ba etxien geratu bihar. Iñok ez auen gura, anaiek be ez auen gure, iñok be ez. Eta esan nutsien: "nire kontura oiñ danok hemen?"
-Eta halaxe?
-Ba bai, eta bertan segi.

9. Senarra nola ezagutu zuen

- **Erref:** ARR-047/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Bere senarra, aramaioarra, Udala auzora bizitzera etorri zenean ezagutu zuen. Auzoko jaietan izaten zen urteko erromeria bakarria Udalan.

Transkripzioa

-Esan dozu gizona Aramaixotik etorri zala.
-Aramaixotik, bai.
-Eta zelan ezaugutu ziñazien?
-Osea, hari aitta-amak hil jakonien, ha auzuen egon zan apopillo. Hemen egon zan taberna baten, apopillo auen.
-Aitta-amak galdu zittuen gaztetan?
-Bai, gaztetan. Umetxuek ziela umezurtz anai-bixek geratu zien, Mallabixen hazi zien primo bateaz, eta gero handik puxkat hazi zienien hemen ospitalien geratu zian, eta ospitaleetik ba lanera ero ekin zanien, apopillo etorten zien auzora.
-Eta lan hemen bertan eitten eben?
-Arrasaten frabikan baiña hemendik lanera faten.
-Bizi hemen?
-Bizi hemen. Lo ta hemen. Osea, frabikan ebitzen lekuen hemen auzoko tabernakue han ebillen biharrien eta berak esan utsien: "Ba gure bozue etorri, lo eiñ, eta gero ba geuri basarrixan lagunketa alde eta, eta ezebe eztotsueu kobrauiko ta...". Halan etorritta azen horra.
-Mutiko langilliak orduan.
-Bai.
-Erromeixan baten edo ezautu ziñuan?
-Auzuen, auzuen bertan, erromeixatara faten gintzen, ala? Ez auen, orduen ez auen ezer, e.
-Auzuan etzan egiten erromeriarik?
-Ez auzuen etzan itten. Auzoko fiestetan ero bai, urtien behin ero eitten bazan, baiña. Bestela ez auen hemen ezer. Etxien beti.

10. Gaez ikazkinak bidean

- **Erref:** ARR-047/011
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Behin Arrazolako jaietara joan ziren neska kuadrilla bat Udalatik. Gaezan itzultzean ikaragarritzko beldurra pasatu zuten, bidean ikazkinak azaldu zitzaizkien eta.</p>

Transkripzioa

- Ni akordetan naz urte bat, aillegau zan eta aitta-amai Arrazolara fan bihe geuela Andra Maixetan. Aittek esaten oskun, amak: "Ikusikozue, fuen, fuen, ikosikozue. Ez zaitteze fuen, ez zaitteze!" Umien kontuek. "Zegaittik ez ba?" (Derrigor?) fan bihou. Gehixau ez geuen esan fan bihe geuenik guk. Gero tentetan giñuen: "Etzoieze" ta. "Ez". Fan gintzen, eta mutill ero ezautu gittun baten batzuk, baiña, zein da harek esan oskun: "Geuk lagunduko dotsuu, hor ikazgiñek dabitx eta ikusikozue" Ba mutillok geugaz. Esan guntsen han goiko tontorrien: "Bueno, hemendik fuengo gara eta ia esta. Bueno guk hemen itxi ein (gau), e, eta ezer zerik itten bozue, ulu". Ulu?, sasixok be ez dakit zer [da] ulue. Eurak aillegau zien, ikezgiñen ebitzenok urten oskuen guri, eta bestiek goixe itxeitten, eurak etorten zien eta gero lagundu oskuen, e.

-Orduan ulu egin zeuen?

-Ulu? Biheko ulu. Ez geuken pasoik, urten oskun sasittik.

-Zenbat urtekin hori?

-Ba hamalau-hamabost urteko neskatillak izengo gintzen. Edo hamazazpi igual eukingo gittuen. Eta aittek eta esan oskun: "e zaitteze fuen, ikusiko dozue". Baiña umien kontuek.

-Lelengua ta azkena.

-Bai.

-Arrazola hori nun dago?

-Bixkaikue, Abadiño zera. Ta gehixao ez geuen esan eta gero esaten oskuen: "Ez zoieze? Benga!, Andra Maixak die. Baiñe ez geuen kontau historixie ze pasau jakun. Baiña gehixao ez gauen esan fan bihe gauenik, e!

-Zeoze pentsauko zeuben, ezta?

-Bai, euren artien bai. Hartu daue suston bat eta etxuek gure honek gehixao. Baiña gehixao ez gauen aittatu fan bihe gauenik, e. Eta ez gintzen fan.

-Eta ze zeukan ba, famia Arrazolako..., hemendik haraiño joateko?

-Keba! Neskattillan kontue, auzuen (...) lagun danok pentsau gauen fuetie, han jaixak ziela ta.

-Kuadrillie joan ziñen?

-Klaro! Fuen gintzen ba lagunek, xei edo zazpi neska. Gehixao ez gauen esan guk fan bihe gauenik ez batek eta ez bestiek.

-Ikazgiñak baltzak.

-Eta mutillek esan oskuen, harek baekixien. Geuk lagunduko dotsuou. Bat

zan primue gure lagun batena, geuk lagunduko dotsuou. Eta goiko tontorrien esan guntsen, bueno hemendik fango gara. Eta zerien eta,esan oskun, bueno, hor behien (...) deittu. Deittu? Nik ez dakit txilixuak atara gittuen edo sasixek entzun (...), han agertu zien (...) etxafleruen pare. Nora ezkutau zien be ez gittun guk gehixao ikusi. Eta gero auzoraiño lagundu oskuen, e.

-Eta ikazgiñok intenziño txarrakin, ala?

-Geuk badakigu ba ze...

-Baiña bildurra.

-Ha sustua zan gabien, e.

-A, gabaz.

-Gabez. Eguna izan balitza ikusten dozu, baiña gaba zan. Erromeixara fuen gintzen eta gabien getozen gu handik. Gaba zan. Egune izen balitz ikusten da. Baiñe illunien ez dozu ikusten zuk han zer dauen, e. Eta gero auzoraiño lagundu oskuen.

11. Domeketan meza eta arrosarioa; auzoko tabernak

- **Erref:** ARR-047/012
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:29:32. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Auzoko jaietan, San Estebanetan, izaten zuten Udalan dantza egiteko aukera bakarra. Igandero mezara goizez eta arrosariora arratsaldean joan behar izaten zuten, bestela errieta etxean. Hamarretan meza, lauetan arrosarioa eta zortzietarako etxean egon behar. Kalera joateko astirik ere ez zuten izaten. Lau taberna zeuden auzoan: Matonena, Pildain, Uxarte eta Larrain Etxe. Azken bi hauek lanean jarraitzen dute oraindik.</p>

12. "Bedeinkatu" gabeko esnea

- **Erref:** ARR-047/013
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:35:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Arrasateko azokan denetik saltzen zuen. Esnea (hogetaka litro) eramaten zuen egunero kalera. Noizbehinka udaltzainek esnearen laginak hartzen zituzten aztertzeko. Artetan ez zuten esnea "bedeinkatzen".

13. Baserritarrak azokan

- **Erref:** ARR-047/014
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:35:14. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Azokan pezetaren bat edo bi ordaintzen zuen postuagatik. Baserritar asko elkartzten ziren azokan. Bizkaitik ere etortzen ziren saltzaileak. Astoa karga-karga eginda joaten zen azokara. Salmentak bukatu, erosketak egin eta etxera itzultzen zen.

14. Gurditik kamioira

- **Erref:** ARR-047/015
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Soroan gari, arto, baba eta beste hainbat gai ereiten zuten. Garai hartan baserritarrek batak besteari asko laguntzen zioten. Orain ohitura hori galduta dago. Diputazioak Udalarako errepidea duela 50 bat urte egin zuen, orduan hasi ziren kamioiak egur garraioan eta. Ordura arte dena idiekin egiten zen.</p>

15. Bataioa eta jaunartzea Udalako elizan

- **Erref:** ARR-047/016
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:40:52. **Bukatu:** 00:41:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Bataioa eta lehen jaunartzea Udalako elizan izan zituen Milagrosek. Gaur egun abadea jaiero igotzen da meza ematera.</p>

16. Lehen jaunartzea

- **Erref:** ARR-047/018
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Don Tomas abadea lehen motorrean joaten zen Udalara. Oraindik ere berak ematen du meza Udalan. Don Tomasen aurretik beste hiru abade

ezagutu ditu. Lehen jaunartze egunean ez zen orduan egoten ospakizun berezirik. Jauna hartzera jaiero joatera behartuta zeuden garai hartan.</p>

17. Ezkontza Udalan

- **Erref:** ARR-047/019
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:45:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkondu ere auzoan egin zen. Ospakizunera ahaide hurbilenekoak bakarrik joaten ziren. Zaragozara joan ziren ezkon-bidaian autobusez.</p>

18. Ura eta argindarra etxean

- **Erref:** ARR-047/021
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:50:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ura beti ezagutu du etxean eta baita argia ere, "ipurtargiak beste argi" ematen zuen arren. Santa Ageda aldetik ekartzen zuten argia. Lixiba egin eta gero auzoko labaderora joaten ziren arropa garbitzera. Xaboia etxeko zaharrek egiten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com